

Udal honetako Gobernu Batzar Lokalak, 2008ko abenduaren 31n egindako bileran, beste batzuen artean, erabaki hau hartu zuen:

2- LASARTE-ORIAKO UDALAREN ATSOBAKAR ZAHARREN ERRESIDENTZIKO ZERBITZU HAUEK ADJUDIKATZEA: HOSTALARITZAKOAK, ZAINZA PERTSONALEKOAK ETA ATENTZIO PERTSONALIZATUKOAK, OSASUN-ARLOKOAK, PSIKOSOZIALAK, PERTSONA ERABILTZAILIEN ETA FAMILIEN INFORMAZIO/ATENTZIO ETA PARTEHARTZEKOAK ETA ERAIKINAREN MANTENTZIO INTEGRALIKOAK.

Lehendabizikoa.

- Lizitazioa balekoa jotzea eta **CLECE, S.A.** enpresari (egoitza Iparragirre kalea, 13, 1. C, 20001 Donosti - San Sebastián duena eta IFK: A - 80364243) Lasarte-Oriako Udalaren Atsotokar zaharren erresidentziko zerbitzu hauek adjudikatzea: hostalaritzakoak, zaintza pertsonalekoak eta atentzio pertsonalizatukoak, osasun-arlokoak, psikosozialak, pertsona erabiltzailien eta familien informazio/atentzio eta partehartzeakoak eta eraikinaren mantentzio integralekoak. Zerbitzu horien adjudikazioa prezio hauekin egiten da:

Hostalaritzako zerbitzuak, zaintza pertsonalekoak eta atentzio pertsonalizatukoak, osasun-arlokoak, psikosozialak, pertsona erabiltzailien eta familien informazio/atentzio eta partehartzeakoak 6.722,24 €/egun eta Balio Erantsiaren Zergari dagokion 470,56 €/egun.

Lasarte-Oriako Udalaren Atsotokar Zaharren erresidentziko instalazioen mantentzio integraleko zerbitzuen kasuan, 124,13 €/egun eta Balio Erantsiaren Zergari dagokion 19,86 €/egun.

Eta prezioak errebisatu egingo dira aldaketa portzentual batekin zerbitzu guztientzat, hain zuzen ere, KPIren aldaketarekin (Kontsumoko Prezioen Indizeak errebisioaren momentuaren aurreko hamabi hilabeteetan izandako aldaketa portzentuala).

Bigarrena.

- Adjudikatua izan den enpresari eskatzea adjudikazioaren erabakiaren argitalpenetik hasi eta 15 eguneko epea ondoren zehazten de dokumentazioa aurkez dezala:

- 124.946,25 €ri dagokion behin-betiko bermea jarri duela egiaztatzen duen ziurtagiria.

Hirugarrena.

- Behin-behineko adjudikazioa behin-betiko bihurtuko da aipatutako epean adjudikatuak aurreko puntuan eskatutako dokumentazioa aurkezten baldin badu.

Laugarrena.

- Adjudikatuak izan ez diren lizitatzailiek jarritako behin-behineko bermeak itzultzea.